




muniversitas
MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARI GEHIGARRIA

m
Mondragon
Unibertsitatea



20 urte, barrutik
kanporantz...

Eskerrik asko
***muniversitas* egiten**
laguntzen duzuen
guztiori!

Baita zeuri ere, irakurle!

Kuxkuxeatu hemen:
www.muniversitas20urte.eus



muniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARI GEHIGARRIA



MONDRAGON UNIBERTSITATEA – MU

Inaxio Oliveri. Mondragon Unibertsitateko errektorea (2001-2006)

Muniversitas-en lehen argitalpenaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldian, Joxe Aranzabalek Unibertsitatean barne komunikazio global bat sortzeko proposamenari egin zuela eta bere ideiarri eman nion babesari buruz hitz egin zuenean, lehen urte haietako egoera, aurre egin beharreko erronka sozio-instituzionalak, eta horien artean komunikazioa, gogora ekarri nituen.

Gai horri heldu aurretik eta hobeto ulertzeko, komenigarritzat jotzen dut garaiko Unibertsitatearen testuingurua azaltzea.

Erronka orokorra unibertsitate proiektu berria finkatzea zen: EHUri atxikitako unibertsitate eskoletatik 3 fakultateko unibertsitate eboluzionatzea, unibertsitate erakunde baten berezko ezaugarriak bereganatuz. Urrats horrek berekin zekarren zentro independenteetatik unibertsitate egitura integratu, kohesionatu eta lehiakorrerako trantsizio prozesuari ekitea, Euskal Unibertsitate Sistemaren erronka akademiko, ikerketa eta sozioekonomikoei aurre egiteko gai izango zena.

Sorrerako legea 1997. urtearen amaierakoa bazen ere, egitura ez zen behar bezala definitu. 2000. urtean, Plan Estrategikoa egin zen. Plan horrek unibertsitate integratuaren ereduaren aldeko apustua egiten zuen, baina, Errektoretza eta Kon-

tseilu Errektorea sortu arren, erabaki, aurrekontu eta plan akademiko, komunikatibo eta hedapenekoetan oraindik banakako funtzionamendua nagusitzen zen.

Helburua egoera hori gainditzea zen, eta egitura bat eraikitzea, zeinek ikastetxe bakoitzaren nortasuna errespetatuz, guztientzat proiektu komuna garatzea ahalbideratuko zuen. Horretarako, 2002an 'Integrazio Kontratu' onartu zen, Errektoretzaren eta zentroyen eskumenak definitzen zituena eraginkortasun, errendimendu eta irudi bateratu handiagoa lortzeko. MUren Egituraketa Proiektua, 2005/2006 ikasturtean sustatua, aurrerapen garrantzitsua izan zen ildo horretan.

Egoera horrek beste helburu batzuk ere zailtzen zituen, bereziki komunikazioan. Ez zegoen komunikazio estrategia komunik, funtsezko alderdirik gizarte ezagutzarako, unibertsitate munduko homologaziorako ezta erronka berrien finantzaketarako. Komunikazio disgregazioa gainditzea eta komunikazio politika komuna garatzea helburu estrategikoa zen unibertsitate eremuan kokatzeko.

Bere ezagutza maila handitzea eta euskal gizartean unibertsitate proiektu berritzaile baten irudia orokortzea erronka saihestezina zen. Bere lurralde kokapenaren ondorioz, Debagoienara ia murriztuta, lurral-

dearen gainerakoan ezagutza eskasa zeukan eta hori handicap handia zen matrikulazioa handitzeko. Presentzia mediatikoa behar zen, unibertsitate gisa duen irudia indartzeko eta eskaintza zabaltzeko. Horretarako, irudi korporatiboa diseinatu zen eta irudi kanpainak egin ziren, MUren presentzia komunikabideetan nabarmen handituz. MUren ezagutza mailak aurrerapen nabarmena izan zuen: %7tik %16ra, bi urtetan, berezko ezagutzan, eta gazteen artean hirukoiztu egin zen, %10etik %30era.

*Komunikazio
disgregazioa
gainditzea eta
komunikazio politika
komuna garatzea
helburu estrategikoa
zen unibertsitate
eremuan kokatzeko.*

Eta testuinguru horretan, kanporantz gehiago pentsatuz, planteatu zuen Joxek barne komunikaziorako aldizkari bat argitaratzeko proposamena. Osotasunaren errealitatea eta ikastetxeen bizitzaren eta ekimenen berri ematea. Unibertsitate esparruko kohesiorako elementua izango zen argitalpen bat; eta, aldi berean, familiei, enpresei eta erakunde laguntzaileei eguneroko bilakaera, zentro bakoitzaren eta unibertsitate osoaren etorkizuneko planak eta estrategiak ezagutzeko aukera emango lukeena. Barne kohesiorako eta MUren hurbileko eremurako kohesio tresna bat. Proiektuaren garrantziaz eta hartutako erabakian izandako egokitasunaz jabetzeko nahikoa da 20 urteko existentzia positiboa aipatzea, eta hasierako 7.000 aleetatik gaur egun 8.500 hartzaile izatea.

Baina ez dira horiek balorazio positiboa egiteko arrazoi bakarrak. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko historia ezagutzeko tresna pribilegiatua da, bakarra, bere bilakaeraren lekuko zehatza. Eta oinarritzeko dokumentu bat ikertzaile, kazetari, analista edo herritar ororentzat Unibertsitate ikertu nahi duena edo izen handiko unibertsitate erakunde batera hurbildu nahi duena; Mondragon Unibertsitate bihurtu den unibertsitate erreferente-ra, hain zuzen ere.

20 urte, 60 aldizkari eta etengabeko bilakaera

MUNIVERSITAS ALDIZKARIA 2005EAN JAIO ZEN MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ETA BERAU OSATZEN DUTEN FAKULTATE GUZTIEN BERRI BARRUAN ETA KANPOAN EMATEKO, ETA UNIBERTSITATEAREN KOMUNITATE IZAERA INDARTZEKO. BEGIBISTAN DAGO PROIEKTU HONEN BILAKAERA.

2005ean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta komunikazio arduradun Joxe Aranzabalek jarri zuen ideia mahai gainean; eta garaian errektore zen Inaxio Oliverik argi berdea eman zion. Eta martxan jarri zen Arteman Komunikazioa agentziaren laguntzarekin. A4 formatuan plazaratzen hasiz, Lorena Martinez ilustratzaileak gai nagusiak kontzeptu gisa azalera eramanez. 7.000 pertsona eta erakundek jaso zuten aldizkaria lehenengo zutuen edo lantokian.

'Ikertzen' gehigarria eta aldizkariaren berritzea

Lau hilero aldizkari bat albistez osatzeko zalantzak berehala uxatu ziren; fakultate guztiek zeukaten zer kontu eta espazioa mugatua zen. Hala, 2010ean Unibertsitatearen baitan sortzen diren ikerkuntzei leku duin eta zabala egiteko 'Ikertzen' gehigarria sortu zen, urtean behin *MUniversitas* aldizkariarekin banatzen dena.

10. urteurrenean jantzi berria estreinatu zuen *MUniversitas*-ek: tamaina handiagoan inprimatu eta elkarriketatu nagusiei protagonismoa eman zitzaizkien argazki bidez pertsonak azalera ekarrita.

Unibertsitatearen bilakaeraren lekuko pribilegiatu

MUniversitas-en 20 urtetako aldizkariaren gainbegiratua eginez edozein ohartuko da aldizkari hau dela Mondragon Unibertsitateak izan duen bilakaera izugarriaren lekuko pribilegiatua. Unibertsitatearen mugari, indargune eta lorpenak zabal eta zehaztasunez jasota daude.

Hala, lehen zenbakian, adibidez, Unibertsitatearen historian hain erreferentziala izan den Mendeberti proiektua zabal landu eta azalean plazaratu zen. Unibertsitateak enpresarekin historikoki daukan harreman estu eta transferentzia ere ohiko gaia izan da; baita unibertsitatearen arteko rankig-etan Unibertsitateak historikoki duen posizionamendu gorena ere; zein bertan ikasitakoek duten enplegarritasun tasa oso altua. Ikasurteetako kurtso irekiera ekitaldi guztiak ere jasota daude eta, horiek esker, ikus daitezke gobernuetan izandako agintari eta ordezkari errotazioa. Unibertsitateak EAEn izandako zabalpena fakultate guztien inaugurazio, zinta mozketak eta ezarritako helburuetan jasota dago. Eta, jakina, mugari izan diren lorpen askoren artean, Unibertsitatearen komunitatea osatzen duten pertsonak jarri dira askotan erdigunean, horiek baitira funtsa.



Aldizkaria barrutik

MUNIVERSITAS-EN 20. URTEURRENEKO GEHIGARRI BEREZI HONETAN ERABAKI DUGU MUNIVERSITAS ZUEN ETXEETARA HELTZEAREN ARDURA DUTENEI AURPEGIA JARRI ETA ALDIZKARIAREKIKO HAIEN IRITZIA EMATEKO PLAZA ESKAINTZEA. NORTZUK DIREN, ZERTAN ARITU DIREN ETA ALDIZKARI HONEN BILAKAERA ETA BETETZEN DUEN PAPER A HOBETO ULERTZEKO TESTIGANTZA ARGIGARRIAK DIRA.

MUniversitas aldizkaria zer paper betetzeko sortu zen azaldu digute zehaztasunez beteranoenek: Joxe Aranzabal sustatzaileak, Goi Eskola Politeknikoko idazkari zen Marian Iñurritegik eta aldizkariaren diseinua sortzeko ardura izan zuten Goio Aranak -gaur egun ere erredakzio kontseiluko kide denak-, besteak beste.

Aldizkaria sortu zenetik erredakzio kontseiluan diharduten Idoia Peñacobak -idazkari nagusiak- eta Susana Azpilikuetak -Unibertsitateko Komunikazio arduradunak- azaldu digute hurrenez hurren Unibertsitatean sortutako ikerkuntza ugarietara eta balioa emateko sortutako 'Ikeretzen' gehigarriaren erditzea; zein Unibertsitateak gero eta zabalkunde zabalagoa duenez aldizkaria hiru hizkuntzatan argitaratzeko beharra, besteak beste.

Bestalde, Enpresagintzako Komunikazio arduradun Amaia Aizpuruk, Unibertsitateko errektoreorde akademiko Jon Altunak eta erredakzio kontseiluko kide Mireia Isazelaiak hizpide hartu dituzte Unibertsitateak izandako bilakera, aldizkariak bide horretan izandako papera eta etorkizunerako mezuak.

Balio dezatela *MUniversitas*eko sukaldean aritzen diren -edo aritu izan diren- hauen guztien testigantzak aldizkariaren osagaiak hobeto eza gutu eta lau hilero etxean jasotzen dugun emaitzari merezi duen balioa emateko!



Joxe Aranzabal

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta komunikazio arduradun ohia

Gaur egungo Historia ikasi nuen, baina lana beste esparru hauetan egin dut: euskalgintzan (Bergarako Udal Euskaltegia), tokiko kazetaritzan (Arrasate Press eta Arrasate Telebista), editore gisa (Euskoletter) eta irakaskuntzan (Mondragon Unibertsitatea). Komunikazio arduraduna izan nintzen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Zer betetzera etorri zen *MUniversitas* aldizkaria? Garai hartan Mondragon Unibertsitatea unibertsitate gaztea zen, sortu berria. Osatzen zuten fakultateek bazeukaten bide bat egina eta tradizio bat, baina bakoitzak hitz egiten zuen bere ahotsarekin. Falta zen hedabide bateratu bat, sinestaziguna MUko partaideoi erakunde bat osatzen genuela eta, aldi berean, proiektatuko zuena unibertsitate berriaren irudi indartsua kanpora. Horrekin batera, unibertsitate osoaren berri zabaldu nahi genien gehien inporta zitzaizkigun komunitateei: ikasle-irakasleak, ikasleen gurasoak eta inguruko enpresak.

Nondik bururatu zitzaizun ideia? Munduko unibertsitate gehienek bazeukaten hedabide bat, beren jardueren berri ematen zuena. Mondragon Unibertsitateak ere behar zuen bat.

Zergatik *MUniversitas*? Izen horrek lotu nahi zituen Mondragon Unibertsitatea (MU) Mendebaldeko unibertsitate-tradizioarekin, garai luze batez latinez adierazi zena (Universitas).

Falta zen hedabide bateratu bat, proiektatuko zuena unibertsitate berriaren irudi indartsua kanpora.



Marian Iñurritegi

Ex secretaria de dirección de la Escuela Politécnica Superior

En 1969 empecé en Fagor Electrónica, donde trabajaban muchas mujeres solteras. Al casarme, debido a la desigualdad de derechos de la época, pasé a trabajar a media jornada en Auzo Lagun. Más tarde, la Escuela Politécnica Superior me dio la oportunidad de trabajar con ellos; fue la mejor decisión de mi vida y una etapa enriquecedora hasta mi jubilación en 2017.

¿Cómo recuerdas tus comienzos? En 1973 empecé en la Escuela Politécnica apoyando al área de Mecánica, que impartía clases incluso fuera de horario. Mi trabajo inicial fue muy polivalente hasta que me centré en la secretaría de dirección. Viví años intensos y enriquecedores de gran transformación hasta jubilarme en 2017.

¿Qué fue lo más difícil? Mi trayectoria estuvo marcada por retos antes y después de ser Escuela Superior: primero, al presentar proyectos a estamentos nacionales; luego, por la complejidad de defenderlos. La transformación de la Escuela Politécnica Superior ha sido un gran logro gracias al esfuerzo colectivo.

¿Cómo valoras la función de *MUniversitas*?

Tras años complejos de transformación en las facultades y MGEP, el esfuerzo colectivo hizo de *MUniversitas* un éxito. La revista ha sido clave para visibilizar la universidad y darnos a conocer en empresas y centros internacionales.

***MUniversitas* ha sido clave para visibilizar la universidad y darnos a conocer en empresas y centros internacionales.**



Goio Arana

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko marketin eta komunikazioko kidea

Tokiko komunikabideetatik eta diseinu grafikotik iritsi nintzen Mondragon Unibertsitatara. Lehenengo harremana eskaera bat izan zen: hain zuzen ere, 20. urteurrena ospatzen ari garen *MUniversitas* aldizkariaren lehen diseinua egitea. Handik urte gutxira hasi nintzen diseinu eskolak ematen Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan.

Zer eginkizun betetzera etorri zen aldizkaria?

Erakunde bateratu moduan, bederatzi urte eskas zituen Mondragon Unibertsitateak *MUniversitas* aldizkaria lehenengoz kaleratu zenean eta, Unibertsitatea bete-betean zegoen instituzionalizazio eta bateratzen prozesuan. Aldizkariaren helburua zen kooperatiba hartzen ari zen indar hori transmititzea.

Nola aldatu da aldizkaria? 20 urteko prozesuan, aldaketa asko izan ditu aldizkariak. Batetik, diseinu eta formatu aldaketak egon dira; bestetik, edukia antolatzeko moduan ere egin dira egokitzapenak. Aipagarria da 2020ko udako zenbakian hartutako erabakia: hiru edizio argitaratzea. Orditik hona, paperean inprimatzen da euskara eta gaztelania uztartzen dituen edizio nagusia, eta webgunean, edizio horri gehitzen zaizkie %100 euskaraz eta %100 gaztelaniazko bertsioak, PDF formatuan.

Zergatik erabaki zen etxeetara banatzea?

Aldizkaria betidanik egon da oso gertu unibertsitatearen hartzaile-taldeetatik. Hasiera-hasieratik erabaki zen ikasle guztien etxeetara postaz bidaltzea aldizkaria, batez ere, gurasoek ere unibertsitatean gertatzen zenaren berri izan zezaten. Baina, bigarren hartzaile-talde garrantzitsu bat ere badago: erakunde eta enpresa kolaboratzaileak. Horiek ere jasotzen dute, lau hilabetetik behin, aldizkaria postontzian.



Idoia Peñakoba

Mondragon Unibertsitateko Idazkari Nagusia

Deustun Ekonomia-Enpresa ikasketak egin ondoren, Saiolanen jardun nuen bi urtez eta ondoren LKSn. 2020an Mondragon Unibertsitatara iritsi nintzen, Idazkari Nagusi gisa; hasieran Errektoretzan talde txikia ginen eta komunikazio kontuak egokitzen zitzaizkidan. Horrela, *MUniversitas* proiektuan hasieratik egoteko aukera izan nuen eta harrezkero erredakzio kontseiluan jarraitzen dut.

Zergatik erabaki zenuten *MUniversitas* aldizkarietik abiatuta 'Ikertzen' gehigarria sortzea?

'Ikertzen' gehigarria sortzeko erabakia beharrak berak ekarri zuen. *MUniversitas* sortu eta hasierako urteetan, ikerketa proiektuei, tesiei eta bestelako jardueri buruzko informazioa aldizkariaren albisteen atalean txertatzen genuen, fakultate bakoitzari zegokion espazioan. Hala ere, Unibertsitatea hazten joan ahala, proiektu eta tesi kopurua nabarmen handitu zen, eta gero eta zailagoa bihurtu zen eduki guztiari tokia ematea. Gainera, hasieran albiste bila ibili behar genuen arren, laster fakultateetako pertsonak beraiek albisteak proposatzen hasi ziren eta ikertzaileek euren lana partekatzeko ere interes gero eta handiagoa agertu zuten. Egoera horren aurrean, ikerketari arreta espezifiko emango zion formatu propio bat sortzea erabaki genuen. Horrela jaio zen 'Ikertzen' gehigarria: urtean behin argitaratzen den ale berezia, eduki espezializatuak biltzen dituena. Gainera, pozgarria izan da jakitea batzuek gehigarria gordetzen dutela.

'Ikertzen' gehigarria sortzeko erabakia beharrak berak ekarri zuen. ikerketa proiektuei, tesiei eta bestelako jardueri buruzko informazioa aldizkarian txertatzen genuen.



Susana Azpilikueta

Mondragon Unibertsitateko komunikazio arduraduna

22 urte daramatzat Mondragon Unibertsitatean. Enpresagintzan hasi nintzen orientazio eta komunikazio arloan, eta 2008an Errektoretzara pasatu nintzen komunikazio arduradun gisa. Geroztik, proiektu oso aberasgarrietan eta taldekide ezin hobekin lanean dihardut.

Zergatik erabaki zenuten *MUniversitas* hiru hizkuntzatan argitaratzea?

MUniversitas aldizkariak Mondragon Unibertsitatean gertatzen denaren leiho izan nahi du gizartearentzat. Duela 20 urte sortu zenez geroztik, unibertsitatearen eredu eleanitzari jarraituz, edukien ehuneko altu bat euskaraz argitaratu da, eta atal batzuk gaztelaniaz zein ingelesez.

Denborarekin, ordea, erronka berriak sortu dira: euskaraz ez dakiten familiak, nazioarteko ikasleak (Latinoamerikakoak, batez ere) eta Unibertsitatearen hedapenak ekarritako publiko berriak.

Hori dela eta, hasierako helburuei eusteko, hizkuntza eredu egokitu da 52. aletik aurrera. Paperezko edizioak lehengo ildoari jarraitzen dio; formatu digitalean, berriz, aldizkari osoa euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzeko aukera dago. Modu honetan, euskararen presentzia bermatzeaz gain, unibertsitatea publiko zabalago bati hurbiltzen zaio.

52. aletik aurrera, formatu digitalean, aldizkari osoa euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzeko aukera dago. Modu honetan, euskararen presentzia bermatzeaz gain, unibertsitatea publiko zabalago bati hurbiltzen zaio.



Amaia Aizpurua

Enpresagintza Fakultateko marketin arduraduna

Nire lana proiektuak, pertsonak eta ekimenak gizartera hurbiltzea da, haien atzean dauden istorioak, ahaleginak eta eraldaketak agerian jarri. Berrikuntzatik eta eragin errealetik elikatzen den komunitate baten parte naiz, balioa sortzen duena eta ingurua eraldatzeko bokazioa duena.

Gaur egungo ikasleei Mondragon Unibertsitatearen esentzia transmititzeko, iraganetik ekarriko zeukeen “albistea” zein izango litzateke? Mondragon Unibertsitateak bere garaian erabaki berritzailea hartu zuela, ikaslea erdigunean jartzea eta enpresekin, erakundeekin eta benetako erronkekin zuzenean konektatutako ikaskuntza eredu bat garatzea, goi-mailako hezkuntzaren ikuspegia errotik eraldatuz.

Erabaki horrek bide eman zuen gaur egun ulertzen dugun ikaskuntza ereduari: Unibertsitatea ez izatea ezagutza transmisiorako espazio hutsa, baizik eta errealtatearekin etengabeko elkarreraginean dagoen esperientzia-gune bat, nazioarteko ikuspegia ere txertatuz.

Ikuspegi horri esker, ikasleek aukera dute benetako proiektuetan parte hartzeko, erakundeekin lankidetzan aritzeko eta testuinguru ezberdinetan garatzeko, baita nazioarteko esperientzien bidez ere, beren gaitasun profesional eta pertsonalak modu integratuz garatuz.

Nire ustez, hori da gaur egun ere gure esentziarik indartsuena: pertsonak etorkizun aldakor baterako prestatzea, esperientziatik, konexiotik eta errealtatearekiko hurbiltasunetik abiatuta.

Ikasleek aukera dute benetako proiektuetan parte hartzeko, erakundeekin lankidetzan aritzeko eta testuinguru ezberdinetan garatzeko baita nazioarteko esperientzien bidez ere.



Jon Altuna

Errektoreorde Akademikoa

Mondragon Unibertsitatean ia hiru hamarkadako ibilbidean, irakasle, ikerlari eta errektoreorde akademiko gisa jardun dut. Pribilegio handia izan da Mondragon Unibertsitatearen berrikuntza estrategikoaren parte izatea, hezkuntza berrikuntza, nazioartekotzea eta gure unibertsitate kooperatiboaren gizarte-proiektzioa sustatzen lagunduz.

20 urte pasa dira MUniversitas hasi zenetik... Nola aldatu zara zu? Zure ardurak? Eta Unibertsitatea bera? 1997an iritsi nintzen Mondragon Unibertsitateara, Edinburgon doktore tesia amaitu berritan. *MUniversitas* sortu zenean, 2005ean, Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikertzailea nintzen, eta handik gutxira hasi nintzen koordinazio akademikoko arduretara. Bolognako prozesuan goitik behera berritu genituen ingeniari ikasketak, XXI. mendeko ingeniari ikasketen oinarriak finkatuz.

2011tik Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa naiz. Nire zeregin nagusia fakultateetan ikasketen kalitate akademikoa harmonizatzea eta Unibertsitatearen erronka estrategikoak sustatzea izan da. Niretzat bereziki esanguratsua izan da Mendeberrirako 2025eko hezkuntza eraldaketa bultzatzea, baita MUREn nazioartekotzea gertutik bizitzea ere, bereziki Latinoamerikan eta azken urteetan European EU4DUAL aliantzaren sorrerarekin.

Egungo Mondragon Unibertsitatea duela 20 urte baino irekiagoa, helduagoa eta gizar-teari ekarpen handiagoa egiteko prestatuagoa dela esango nuke. Aurrera begira, Mondragon Unibertsitatea indartsu ikusten dut, baina horretarako gure proiektu akademiko eta pedagogikoan etengabe berritzen jarraitu beharko dugu.



Mireia Isazelaia

Mondragon Unibertsitateko Komunikazio eta datuen analisien kudeaketa

Unibertsitatearekin harremana duela ia 12 urte hasi zen, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza - LEINN graduarekin, eta ondoren Marketing digitaleko Masterrarekin jarraitu nuen.

Hainbat batzordeko kide ere banaiz; Komunikazioa, orientazioa, webgunea, alumni eta euskara besteak beste.

Hemendik 20 urtera zer titular argitaratu nahiko zenuke?

Erredakzio kontseilura azkena iristek - eta gazteena izateak - badauka xarma berezi bat: dagoeneko aldizkariak badauka historiko bat, baina aldi berean, etorkizuna nolakoa izango den irudikatzea ere eramaten zaitu.

Hemendik 20 urtera titular bat argitaratu beharko banu ondorengo hau izango litzateke: “40 urte eta gero, oraindik, badaukagu zer kontatu”.

Gizartearekin batera eraldatzen joan den unibertsitate konprometituaz aritu nahiko nuke. Geroz eta komunitate zabalagoa duena, kalitatea eta berrikuntza bermatu, eta batez ere, pertsonak zaintzen jarraitzen dituenak. Mundura irekita, baina aldi berean, sustraiak sendo mantendu dituen unibertsitatea, kooperatiboa, euskalduna eta lurraldearekin konprometitua. Herriaren garapen soziala, kulturala eta ekonomikoa bultzatzeko bokazioarekin. 20 urte barru oraindik unibertsitatean lanean baldin banago, lasai, titularra nire kontu. Bitartean jarrai dezagun, komunitatea sortzen, istorio ezberdinak kontatzen eta pertsona ezberdinei ahotsa ematen.

Jarrai dezagun, komunitatea sortzen, istorio ezberdinak kontatzen eta pertsona ezberdinei ahotsa ematen.

20. urteurreneko ekintzak iruditan

20 URTE ZENBAKI ESANGURATSUA DA ETA AITZAKI APROPOSA ATZERABEGIRATUA EGITEKO. HALA, URTEURREN HONEK BALIO IZAN DU GOGORA EKARTZEKO *MUNIVERSITAS* ALDIZKARIAK GURE UNIBERTSITATEAREN KOMUNITATEA SARETU ETA BILAKAERAREN BERRI ZABAL JASOTZEN DUELA.

Testuinguru honetan *MUniversitas* aldizkariaren izana eta edukiak laburbiltzen dituen erakusketa prestatu genuen, ikasturtean zehar fakultate guztietan ikusgai egon dena. Erakusketa bitxia izan da, euskarri desberdinen laguntzarekin, aldizkariaren, unibertsitatearen eta azken hau osatzen dugunon bilakaera zehaztasunez erakutsiz. Artikulu eta argazki ugari sailka banatuta, QRren laguntzarekin ikuskatzeko modukoak. Bizipen, erronka, proiektu eta aurpegi -pertsona- ugari bertan jasota. Aurpegiak eta pertsonak Unibertsitatearen erdigune izan direnak eta direnak: direla lankideak, direla ikasle zein ikasle ohiak...

Landing page

Eta, hain zuzenera, gure Unibertsitatearen historian eta pertsonetan gehiago sakondu nahi duenarentzat landing page bat sortu dugu, www.muniversitas20urte.eus, aldizkari honen edukiak sailka banatuta eta 20 urtetan lortutako emaitz handiaren erakusle izateaz gain, kontsultarako oso baliagarria dena.

Ekitaldia



Horrez gain, urte guzti hauetan *MUniversitas* aldizkaria posible egin dutenei eskertza emateko eta, beste behin, Unibertsitateko komunitatea sartzeko ahaleginean ekitaldia egin genuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Aretxabaletako campusean duen IdeiEnean.

Aspaldiko lankide eta lagunaren topagune izan zen ekitaldia, eta giro oso atseginean, pasadizoak, berrelkartzeak eta hunkidura izan ziren nagusi. Han batu ginen sorrerako Joxe Aranzabal, Marian Iñurritegi, Inaxio Oliveri, Josu Zabala eta Lorena Martinez ilustratzailea; eta baita ere Unibertsitateko eta fakultateetako ordezkariak, ikertzaileak, kolaboratzaileak, atzoko eta gaurko erredakzio kontseiluko kideak eta beste asko.

Eta, urteurreneko ekintzei itxiera emateko, *MUniversitas*-en 63. zenbakiarekin batera, hasierako zenbakiak bezalaxe Enpresagintza fakultateko dekanor Lander Beloki azalean dakarrena, eskuotan daukazuen gehigarri berezi hau banatu dugu.

Eskerrik asko *MUniversitas* egiten laguntzen duzuen guztioi! Baita zeuei ere, irakurleak! Eta bete ditzala beste 20!











Zenbakia BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO

... gure historia
idazten

